

Garatu diren esparruak ezagutzeak eta giltzarri diren lan-arloak (baita bultzatu edo hobetu beharrekoak ere) identifikatzeak aukera ematen digu aurrera egitea ahalbidetuko diguten ekintzak diseinatzeko.

2.2. Analisi kuantitatiboa: 2016-2020 aldiko I+G+B jardueraren datuak


I+G+B arloko 2020ko Estrategiaren (EIS 2020) jarduera-datuak agerian uzten dute jarduera hobetu egin dela orokorrean; izan ere, I+G+B arloan inbertsio handiagoa egin da, arduraldia efizienteagoa eta eraginkorragoa izan da, eta emaitzak hobeak izan dira.

I+G+b jarduerari buruzko datu konparatibo nagusiak jarraian azaltzen dira, 2016. urtea abiapuntutzat hartuta. Emaitzak I+G+Bko lau zentroetan (Bioaraba, Biocruces Bizkaia, Biodonostia eta Kronikgune) egituratutako osasun-sistemaren jarduera globalari eta haren goiburu korporatiboari (BIOEF) dagozkie, I+G+Bren kudeaketa integralerako tresnan erregistratua.

Euskal osasun-sistema publikoan I+G+Bko jarduerak egiten dituzten langile guztiak aldatu egin dira aldi horretan, 1A grafikoan ikus daitekeen moduan.

1A. Grafikoa



2016-2021 aldian I+G+B arloan parte hartu duten langileak.



Iturria: EAEko sistema sanitarioaren I+G+B jarduera - BIOEFen 2020ko MEMORIA (2021eko datuetara egokituta).

1B. Grafikoa

EAEko sistema sanitarioko ikertzaile nagusien (IN) bilakaera 2016-2021 aldian (kop., generoa eta adina < 40 urte).




Hala ere, **ikertzaile nagusien kopuruak % 21** egin du gora –**gehienak emakumeak dira (% 55)**–, 2016an baino % 5 gehiago. Gainera, plantilla gaztetu da (% 6, gutxi gorabehera), ikertzaile gazteak EAEko Osasun Institutuetan (OII) sartu direlako.

EAEko sistema sanitario publikoan, **I+G+Bko funtsen bilketa** etengabe hazi da urtez urte, azken urte hauetan osasun-ikerketako institutuen (OII) I+G+Bko egituren sorrerari esker. Hazkunde horren bultzatzaile nagusia da sistemak ikerketa sanitariorako laguntzen lehia-deialdien bidez (Europakoak barne) funtsak lortzeko duen gaitasuna. Gainera, aipatzekoa da sistema sanitarioak azterlan klinikoetan parte hartzeagatik lortutako finantzaketa handitu egin dela, bereziki COVID-19 txertoen (CombiVacs, Curevac eta Hipra) saiakuntzei lotuta 2021ean.

2. Grafikoa

Kanpoko finantzaketa-bilketa, 2016-2021 (M€tan, %).




Iturria: EAEko sistema sanitarioaren I+G+B jardura - BIOEFen 2020ko MEMORIA (2021eko datuetara egokituta).

Ikerketa-jardueraren datuei dagokienez, alegia, proiektu eta azterketa kliniko aktiboen kopuruari, goranzkoa da joera baliabideen hazkundeari esker.

3. Grafikoa

Aktibo dauden I+Gko proiektuak (2016-2021) (kop., %).



Iturria: EAEko sistema sanitarioaren I+G+B jarduera - BIOEFen 2020ko MEMORIA (2021eko datuetara egokituta).

Ikerketa-proiektu eta azterketa kliniko horiek egin diren gai-arloak kontuan hartuta, **onkologia** eta **neurologia** nabarmentzen dira, I+Gko proiektu aktibo gehien dituztenak direnez.

4. Grafikoa

Arlo tematiko nagusiak.





Iturria: EAEko sistema sanitarioaren I+G+B jarduera - BIOEFen 2020ko MEMORIA (2021eko datuetara egokituta).

Bestalde, ekoizpen zientifikoaren hazkundera ere gertatu da (argitalpenak, urtean +% 9, 2015 eta 2020 bitartean); kalitatea, ordea, egonkor mantendu da (- % 48 Q1).

5. Grafikoa

Argitalpenak 2016-2021 aldian (kop., %).



Iturria: EAeko sistema sanitarioaren I+G+B jarduera - BIOEFen 2020ko MEMORIA (2021eko datuetara egokituta).